

LUZAPREKIN
Eneko Olasagasti

ZINEMA EKOIZLEA

Cluster Jenerala?

Urte mordoan joan da ikus-entzunezko arloa industriatzen onartua izan zedin borrokan hasi ginetetik. Arloari abantailak ikusten genizkiolako azaldu genituen gure errebindikazioak, noski.

Beharbada ez genekien oso ondo zein ziren errebindikazio zehatzak, baina garbi ikusten genuen kulturaren esparruari herri honetan ematen zaion eremutik harago joateko behar zirela behintzat, etnografiatik gertuago bai-genbiltzan ekoizpen kulturaletik baino. Eta lortu, hori lortu zen behintzat.

Behinhola aukera zabaldu eta Ikusentzunezko Clusterra izango zenerako lehen bilerak deitu ziren Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailaren eskutik, Bilboko empresa batek kudeatuta. Bitxia bada ere, Kultura Saila ez zen inoiz eta inondik ageri izan. Beste guztiak han ginen: herri honetako komunikazioaren monopoliokoetatik hasi eta produktora txikitakoetaraino. Ia denak esango nuke. Ez da alferrik izango esatea: zuzendaritza eta bere adarrak antolatzeke momentuan, txikiak, kontrakoa negoziatzen ibili baginen ere, kanpoan gelditu ginen. Esango dute denok dugula egoteko aukera, eta hala da, baina azkenean diruak erabakitzen du boto kopurua eta horrexek beste guztia. Sortze garai hartan gertatutakoak bultzatu zituen asko irtetera.

Batzuek urte edo epe batez iraun genuen, gutxi batzuek hor diraute, nik esango nuke, alde egiteko une egokiaren zain. Baina tira, kontua da EIKEN (Ikusentzunezkoen Clusterra) hor dagoela, Industria Sailak aurrekontuaren zati inportante bat ipintzen duela eta enpresa nagusi diren gehienak (Vocento ez, esaterako) bere baitan bilduta (Euskaltel, EITB...). Zertarako ordea? Hortxe dago koska.

Esan zitzaigun enpresa txikiontzat onuragarria



INES URRUTIA

izango zela eta une honetan dudak ditut, baita handientzat izan ote den ere. Kontua da azken boladan elkarlanerako deiak zabaltzen ari direla ekoizle onartekideen inguruan, gure elkarteak, IBAIAk, Klusterrarekin bat egin dezan hainbat egitasmotan. Eta berriro ere galdera bera: zertarako?

Klusterra, berez, nazioarteko merkatuan leku bat irabazteko tresna da eta Euskal Herriko beste arlo batzutan arrakastatsu gertatu da. Baina eredu berdina balio al du gure arloaren garapenerako? Agian ez. Nazioartean saltzeko zer saldu edukitzea ezinbesteko

koa da. Eta guk gurean ba al dugu horrelakorik? Kostata sortzen ditugu-eta guretzako moduko edukiak. Zer da nazioarteratu nahi duguna? Ez al dago Industria Sailak gure arloari laguntzeko beste modurik? Egon egongo da, seguru, baina ez dago horri denbora eskaintzen dion inor. Guk, txikiok, nahikoa dugu gure egunerokoa aurrera ateratzearekin, eta ez gara gutxi gainera. Handien arazoek ez dute gurekin zerikusirik, edo hala izatea espero dut, eta erakundeek, gehienetan, eredu finko eta itxiek dihardute. Honetarako eta horretarako balio izan baldin

badu hartarako ere balio beharko du. Guri, geure burua berezitat daukagun herria izanik, zenbat eta zenbat kostatzen zaigun albokoa berezia dela onartzea. Zer egin behar du Klusterrak? Hori da oraindik erantzun gabe dugun galdera.

Agian nahastu egin ditugu Kluster eta Custer eta gurea Jeneralaren portaera da, Zaldunen 7.a Indioen eremuan sartzea erabaki zuenean, aukerarik ez zegoela jakinda. New York-en euskal zinearen erakusketa bat antolatzearen parekoa egiten zait. ■

«
Geure burua berezitat daukagun
herria izanik, zenbat eta zenbat
kostatzen zaigun albokoa berezia dela
onartzea. Zer egin behar du
Klusterrak? Hori da oraindik
erantzun gabe dugun galdera
»

